



Osakidetza


EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

Oftalmologiako Zerbitzua

Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

**Irakaskuntza-ikuspegia:
Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako lanbide-profila**



Prestakuntzaren Planifikazio-Garapen-Ebaluazioan koherentzia

Konpromisoa: Erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.

<http://www.revistaaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Guruzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUA



OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUA

Guruzetako Unibertsitate Ospitaleko OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUAK 40 urtetik gora darama begien patologiak artatzen, eta ahalegintzen gara asistentzia integral bat ematen patologia hori duten pazienteei, oftalmologia barneko espezialitate guztiak koordinatuz eta irakaskuntza zein ikerkuntza bultzatuz.

Jarraian zehaztuko dira:

- Nor gara
- Non gaude
- Irakaskuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)
- Ikerketa
- Prestakuntzaren ebaluazioa



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Guruztetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUA



Nor gara



Zerbitziburua:
Nerea Martínez Alday dk.



Tutorea
Sergio Pinar Sueiro dk.



Tutorea
Raquel Feijoo Lera dk.

Zerbitzua 1973. urtean sortu zen, eta prestakuntza osoa eskaintzen du oftalmologiako alor guztietan. Halaber, 1973. urteaz geroztik, espezialistak prestatzeko akreditatuta dago. Espezialitatearen Estatuko Batzordeak eskatutakoari egokitzeaz gain, gure prestakuntza-planak eguneroko praktika klinikoa du helburu, gure eskuetatik igarotzen diren pazienteen kopurua handia eta patologien aniztasuna baliatuz.

Bi egoiliarrentzako tokia daukagu, baina espezialitatearen eskaintzaren saturazioa dela-eta, azken urtean plaza bakarra eskaini dugu,

40 urte horietan pertsona hauek zuzendu dute gure zerbitzua: Gil del Rio dk., Salcedo dk. eta Duran dk. eta gaur egun, Nerea Martínez Alday dk.k du horren ardura.

Zerbitzua aitzindaria izan da begi-gaixotasunen diagnostikoan eta tratamenduan, eta bere ibilbide luzean, sona handiko profesional ugariaren parte hartzea izan du, nork bere lorratza utzirik.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUA



Hona hemen zerbitzuaren garapenean izandako gertaerarik nabarmenenak:

- Begi barneko lente baten lehenengo inplantea begi-lausoaren kirurgian. (Vicario dk.)
- Lehenengo kornea-transplantea Euskadin
- Lehenengo kornea-protesiaren inplantea –Keratopotesia– estatuko ospitale publiko batean, 2006an (Etxebarria dk.)
- Keratoplastia lamelarraren teknika ezartzea, 2002. urtea baino lehen (Etxebarria dk.)
- Zuntz amniotikoaren lehenengo injertoa begiko azala birsortzeko teknika bezala, 2000. urtea (Etxebarria dk.)
- CSU begi-azala birsortzeko tekniketan, 2008. urtetik aurrera
- Telemedikuntza ezartzea erretinopatia diabetikoaren diagnostiko eta kontrolerako (Erretina eta Bitreoko Atala)
- Garaiz aurrekoaren erretinopatiaren diagnostiko eta tratamendurako unitatea sortzea. (Martínez Fernández dk.).
- Oftalmologia Pediatrikoaren berezko Atala eta Pediatriko Eguneko Ospitalean berezko kontsulta bat sortzea (Martínez Fernández dk.).
- Betzuloko eta okuloplastiako Unitatea sortzea, estatuko hainbat eskualdetako pazienteak artatzeko. (Fernández Hermida dk.)
- Neurofalmologiako Atala sortzea, Neurologiako Zerbitzuarekin koordinazioan.
- Ubeitis Unitatea sortzea, eta kontsultak Barne Medikuntzako Zerbitzuarekin koordinatzea.

Hau da lantaldea:

- Zerbitzuburu bat: Nerea Martínez Alday dk.
- Erretina eta Bitreoko atalburu bat: Concepción Martínez Antón
- 28 mediku adjuntu

Zerbitzuak **atal edo unitate asistentzial** hauek ditu:

- Erretina eta Bitreoko Atala : 7 adjuntu
- Atzeko polo eta begi-azaleko Atala : 3 adjuntu
- Glaukoma Atala : 3 adjuntu
- Oftalmologia Pediatrikoko Atala : 5 adjuntu



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUA



- Begi-orbita eta okuloplastikako Atala : 1 adjuntu
- Oftalmologiako Larrialdiak: 1 adjuntu
- Arloko anbulatorioak : 3 anbulatorio / 5 kontsulta
- 2 ebakuntza-gela espezifikoko; bi goizez eta bi arratsalde; eta oftalmologia pediatrikoko bi ebakuntza-gela astean behin. Horrez gain, badugu beste bi ebakuntza-gela ditugu begi barneko medikazioa emateko, eta kirurgia txiki anbulatoriorako ebakuntza-gela espezifikoa bat. Guztira, 27 txanda astean.
- Kirurgia mota hori egiten den larrialdietako operazio-geletan, mikroskopio espezifikoko bat dugu erabilgarri.

Zerbitzuak 7 kontsulta ditu, eta 7 gela miaketa zein proba espezifikokoak egiteko. 2012an, ospitale barneko 34.600 kontsulta egin dira, 47.000 ospitalez kanpokoak, eta 6074 interbentzio gauzatu dira, gehienak kirurgia anbulatorioan.

Urteko, batez beste, 14.000 paziente artatzen dira larrialdietan; izan ere, bagara 24 orduetan arreta eskaintzen duen Bizkaiako ospitale bakarra, larrialdietan 2 kontsulta ditugularik.

[Irakaskuntza > Urteko Memoria Osoa "Arlo klinikoak"](#)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Guruztetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUA



Prestakuntza-eskaintza

Gure erakundearen asistentzia-jarduera luze-zabalak ahalbidetzen digu gure espezialitateko alderdi nagusiak eskainiki eta bermatzea espezialisten prestakuntzari begira.

- A. Prestakuntza oftalmologiako larrialdietan tutoretza espezifikoarekin.
- B. Prestakuntza osoa oftalmologia orokorrean eta optika klinikoan, egoitza-aldiko lehenengo urtean.
- C. Prestakuntza espezifikoa atzeko poloaren, begi-azalaren eta kornearen patologia. Errotazio espezifikoa Begi-azaleko Unitatean.
- D. Erretina eta bitreoko patologia, eta errotazio espezifikoa Ubeitis Atalean.
- E. Prestakuntza estrabismoetan eta oftalmologia pediatrikoan.
- F. Prestakuntza glaukomaren tratamendu mediko eta kirurgikoan.

Gainera, beren-beregiko dedikazioa dugu patologia edo prozedura konplexu hauetan:

- 1. Ubeitis-unitate espezifikoa, barne-medikuntzako zerbitzuarekin koordinazioan.
- 2. Orbita eta okuloplastiako atala, estatuko hainbat autonomia-erkidegori zerbitzua ematen diena.
- 3. Zentro akreditatua begi-azaleko patologia larriaren diagnostiko eta errehabilitaziorako.
- 4. Neurooftalmologiako atala, neurologiako zerbitzuarekin koordinazioan.
- 5. Pediatriako eguneko ospitalea, oftalmologia pediatrikoko atalaren barruan, eta berebiziko dedikazioa prematuritatearen ondoriozko begi-patologiari.

Beste zentro batzuetatik datozen profesionaleri prestakuntza-egonaldiak eskaintzen dizkiegu:

- a. Begi-azaleko Unitatea : 2 egun kontsulta eta 1-2 ebakuntza-gela astean .Etxebarria dk.
- b. Orbita eta Okuloplastiako Unitatea: 2 egun kontsulta eta 2 ebakuntza-gela astean. Fdez. Hermida dk.
- c. Ubeitis Unitatea: 2 egun kontsulta eta 1-2 ebakuntza-gela astean

Atalean jarduerarik ez dagoenean, beste espezialista batekin egoteko aukera eskainiko da.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUA



Informazioa gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gure zerbitzu-zorroa:

[Ospitalea> Zerbitzu-zorroa-OFTALMOLOGIA.](#)

Irakaskuntzako Batzordeak hainbat [ikastaro](#) antolatzen du ([ikusi irakaskuntzako jarduerak](#)) espezialitate guztien oinarriko prestakuntza osatze aldera, gehienak nahitaezkoak amaierako titulazioa lortzeko.

Halaber, Ospitaleak [Saio Orokorrak \(ikusi irakaskuntzako jarduerak\)](#) antolatzen ditut hilean behin ala bitan, asteazkenetan, goizeko 8:30ean, areto nagusian. Norberaren espezialitatea gora-behera, saio horiek funtsezkoak dira formazio integral bat erdiesteko; izan ere, , interes bereziko kasu klinikoak ezagutzeaz gain, abagunea dira ospitale, zerbitzu edo unitateen funtzionamendua eta horien arteko elkarreragina ezagutzeko, bai eta batzordeen garrantzizko eginkizunak ere.

Astean, espezialitatearen saio kliniko espezifiko bat antolatzen da, eta noizbehinka, baterako saioak beste zerbitzu batzuekin.

Uneotan, Oftalmologiako gradu aurreko prestakuntza espezifikoa antolatzen ari da EHUarekin elkarlanean, eta zerbitzuan praktiketako hainbat tutore daukagu.

Zerbitzuak sustatzen du egoiliarrek espezialitateko ikastaro eta biltzarretan era aktiboan parte hartzea: ahozko aurkezpenak, posterrak, mahai-inguruak, e.a.

Harreman estua dugu Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Biocruces Institutuarekin, eta egun, biokin dugu hainbat proiektu abian.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUA



Prestakuntza-ibilbidea (Errotazioak)

1. urtea

- a. Oftalmologiako larrialdiak 2-3 egun asteko, 6 hilabetetan
- b. Oftalmologia orokorra 2-3 egun asteko, 6 hilabetetan
- c. Atzeko poloa eta erretina errotazioaren hasiera

2. urtea:

- a. Atzeko poloa eta erretina (jarraipena)
- b. Glaukoma eta neurooftalmologia 4-5 hilabete

3. urtea:

- a. Begi-orbita eta okuloplastikoa 5 hilabete
- b. Estrabismoak eta oftalmologia pediatrikoa 6 hilabete

4. urtea:

- a. Begi-azala eta kornea 6 hilabete
- b. Erretina eta ubeitisa 5 hilabete

Egoiliarrak kanpoko egonaldiak egin ditzake estatuko zein nazioarteko zentroetan. Irakaskuntzako Batzordeak eta gure zerbitzuak prestakuntza-aldiak errazten ditu zentro hauetan:

- ✓ Moorfields Ospitalea, London.
- ✓ Wills Ospitalea . Philadelphia .
- ✓ Erlangen Ospitalea ,Erlangen .Alemania
- ✓ Eye and ear infirmary ,Boston

Espezialitatearen prestakuntza-ikastaro espezifikoak hauek dira:

- ◆ Oftalmologiaren hastapen-ikastaroa, Castroviejo Institutuak antolatua.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUA



Ikerkuntza

Biocruces Ikerkuntza Institutuak laguntza ematen dio ospitaleari ikerketa arloan.

Zerbitzuak beheko ikerketa-lerroak zuzendu edo lankidetzen garatzen ditu sarean:

Begi-azaleko unitatea:

1. *Colirio s-PRGF . Objetivar las concentraciones de distintos factores y crecimiento y comparación de sus concentraciones respecto a suero autólogo y otros PRPs*
2. *Características s-PRGF en migración, invasión y diferenciación de células epiteliales y queratocitos.*
3. *Comparativa In vivo de distintas concentraciones de s-PRGF en el cierre de úlceras corneal es. Comparativa con suero autólogo y otros derivados hemáticos*
4. *Validación de su uso combinado con bioadhesivos*

Azterketa Klinikoa

Uso de colirio NGF recombinante humano en el cierre de úlceras corneal es neurotróficas

Neuroftalmologia/Oftalmopediatriako Unitatea:

1. *Valoración del efecto protector del tratamiento con creatina, coenzima Q y DHA en pacientes con NOIA*

Glaukoma Unitatea:

Title of the study: Safety and Efficacy assessment of Monoprost® (unpreserved latanoprost) in comparison with Lumigan 0.01 % and Lumigan UD, in patients with primary open angle glaucoma or ocular hypertension, stabilized by Lumigan® 0.01 % with ocular surface intolerance.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Guruztetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUA



Ubeitis Unitatea:

1. *GENUVE*: ubeitsiaren oinarri genetikoei buruzko ikerketa
2. *Ubeitis MEVA*: ubeitisen jarduera-parametroen balorazio-ikerketa



Subdirección General de
Evaluación y Fomento de la
Investigación

2013

CONVOCATORIA DE AYUDAS DE PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN EN SALUD
MEMORIA DE SOLICITUD

Expediente N°
PI13/02148

TITULO: Estudio de factores clínicos, hallazgos de tomografía de coherencia óptica y biomarcadores como factores pronósticos de la agudeza visual en el edema macular secundario a uveítis

Erretina Unitatea

1. POLARIS ikerketa: *Estudio no intervencionista para valorar eficacia de los regímenes actuales de tratamiento con anti-VEGF en EMD*
2. MK-8931-017 Saiakuntza Klinikoa: *eficacia y seguridad del MK-8931-017 en pacientes con Alzheimer leve o moderado*
3. OBSERVAR ikerketa: *estudio descriptivo sobre la adhesión de los retinólogos a las recomendaciones de la SERV en el tratamiento de EM secundario a ORV y EMD*

Farmazia-industriarekin ere lankidetzan dihardu saiakuntza klinikoak gauzatzen.

Egoiliarrak arian-arian sartzten dira ikerketa-lanetan, eta egonaldiaren 2. urtea amaitu ondoren, doktore-tesiari ekin diezaiokete.

Jarduera zientifikoari buruzko informazio xeheagoa eman duzue:

[Ospitalea > Ikerketa > Txosten Zientifikoa](#)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUA



Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketaren motorra da eta ikasketa erraztera zuzenduta dago, beraz, indarrak eta ahultasunak antzeman eta hobekuntza planak ezarriko ditu. “**Ebaluazio formatiboa**” deitutako ebaluazio mota horretarako, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu. Behean aipatuko diren metodo horiei esker, informazio zehatz bat iturri anitzetik lortu eta hainbat ikuspegi izan ditzake (gainbegiralearen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio horrekin, **Urteko Ebaluazio Batzordeak** txosten bat lantzen du aho batez, eta bertan, egoiliarraren indarrak eta hobetzeko arloak (egongo balira) adierazten dira. Gaitasunetan oinarritutako txosten honek ezinbestean egindako ikastaroen egiaztagiriarekin batera “**Egoiliarraren Urteko Txostena**” osatzen dute. Tutorea prestakuntza prozesu guztiaren kudeaketaren arduraduna da eta Urteko Txostena emango dio ikasleari.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Alergia Zerbitzuko BAMEek (Barruko Mediku Egoiliarrak) lortu beharreko gaitasunak, Ospitaleko irakaskuntza Batzordeak zehaztutakoaren arabera:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientea zaintzea eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa
5. Osasun sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (Osasunaren sustatzailea eta Baliabideen Kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (Analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Asistentzia- eta irakaskuntza-gaitasunak, espezialitatearen beraren ikerketa gaitasunekin batera, hemen biltzen dira: [Oftalmologia espezialitatearen programa ofiziala](#) .



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUA



Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio sistema orokorra¹.

[Irakaskuntza Batzordeak](#) eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak ebaluazio sistema zuzentzen dute. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen joan den [“Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua”](#) proiektuaren parte da. [Ebaluazio metodoak](#) hauek dira:

- Txandatze bakoitzaren Gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, Gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko berezko eredu)
- Tutorearekin aldi behingo elkarrizketak (gutxienez urtean bi)
- Autoebaluazioa
- Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da) bi alderdi hauek sartzen ditu: jasotako gaitasunen gaineko hausnarketa eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin erlazionatutako beste ekintzen kuantifikazioa
- Gaitasunetan oinarritutako Tutorearen urteko txostena
- Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

Egoiliarren ebaluazioa jasotako Prestakuntzaren gainean.

- Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei gogobetetze inkesta bat bidaltzen die.
- Bi urtean behin, otsaila eta martxoaren bitartean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetze inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hau orain dela 20 urte egiten da. Emaizak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaie

Oftalmologiako Zerbitzuaren berezko metodoak, Irakaskuntzako Batzordeak onetsiak.

Zerbitzuak ebaluazio-metodo hauek erabiltzen ditu:

- Aldizkako elkarrizketak errotazio bakoitzaren arduradunekin.

¹ Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberry M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J y González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del Hospital Universitario de Cruces. XXI Congreso de la Sociedad Española de Educación Médica Madrid 2013. FEM 2013; 16 (Supl 2): S62. Disponible en: <http://www.sedem.org/resources/abstractsSedem2013.pdf>.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

OFTALMOLOGIAKO ZERBITZUA



Oftalmologia ©